



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



EZ DA KASUVLITATEV

Emakume bertsolarien bertso saio musikatua



“Diskurtso maskulinoaren kantxatik geure definizio
propioak sortzen ditugun eremuetara igaro den
edozein emakumek ezagutzen du sentipen hori:
itzultzeari uztearena”

Adrienne Rich

ez da kasualitatea

2009an egin zen aurrenekoz Ez da kasualitatea bertso saio bat. Berdintasun teknikari batek bertso saio feminista bat antolatzeko eskatuta elkartu ziren zenbait bertsolari, gai-jartzaile eta musikari; ustez, saio bakarrerako idean. Geroztik, ehundaka Ez da kasualitatea egin dira Euskal Herriko plazetan, hamarnaka emakume bertsolarik kantatu dute haietan eta erreferentziazko emanaldi bilakatu dira bertsozale, bertsolari eta gai-jartzaile feministen artean.

Ez da kasualitatea bat-bateko bertso saio musikatua da. Gitarra, biolin zein saxo-doinuen gainean inprobisatzen dute bertsolariek gai-jartzaileak proposaturiko gaiei buruz. Saioak ez-mixtoak dira: lau bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izaten dira beti. Umorea, jolasa, gogoeta, bertsolari feministen arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa.






«Ez da kasualitatea festa bat da»

«Lantzen ditugun gaiak, ikuspegiak, umore mota... bereziki interesgarriak dira eta beste gune batzuetan ez dira ateratzen»




**«Kontaktu fisikoa dago; konfiantza geure buruarengan;
lasaitasuna, epairik sentitu gabe eta berdinetik berdiner, Talde
sentsazioa esperimentatzen dut»**

**«Lasaitasunak hobeto kantatzera eramaten nau:
gehiago ikusten dut»**



«Ez da kasualitatea-n egin ditut saiorik erotikoenak»

**«Habitat segurua da»
«Gure arteko aliantzak ez dira esentzialak,
politikoak dira, landu egin ditugu»**



«Ez da kasualitatea saioetan presente dago gorputza: mugitu egiten gara, elkar ukitzen dugu, batzuetan dantza egiten dugu..., baina autoerrepresentazioa da, ez bestek gutaz egiten duten irakurketa»

«Kode bat sortzen, zabaltzen ari gara. Hori oso ederra da. Hizkuntza bat egiten aritzearen plazera»

ez da kasualitatea

Nori zuzendua:

Helduei

Bertsolariak:

Antolatzaileak aukeratutako lau bertsolari
emakume

Musikariak:

Ixak Arruti, Gari Otamendi,
Araitx Bizkai...

Lekua:

Aretoak, kultur etxeak, plaza...

Iraupena:

90 mn.

Kontratazioa:

Marta Agirrezabala Zubillaga
marketina@lanku.eus
675716472

www.lanku.eus



